

Gai ordena:

- 1- Argiteriaren auditoria**
- 2- Plaza eta bidegorria**
- 3- Beko kale**
- 4- Hirigintza arau orokorrak**

1- Argiteriaren auditoria

Itsasondoko argiteriaren auditoria egin duen enpresak aurkezpentxo bat egin dio lantaldeari.

Laburbilduz argiteriaren kontsumoaren %75-%90 aurreztu ahal izateko LED teknologian oinarritutako “telegestioa” daukan sistema bat gomendatzen dute. LED argiteria berezko kontsumo baxua dauka eta telekudeaketa sistemak argiteriaren erabilera inteligentea ahalbidetuko luke, argia (eta ondorioz energia kontsumoa) murriztuz beharrezkoa ez denean.

Sistema hori Gabirian jarri omen dute. Argiteriaren kudeaketaz gain sistema honek WIFI antenak, bideokamarak, bozgoragailuak, eta antzeko tramankuloen erabilera ahalbidetuko luke, zuzenean farolak erabiliz eta obra egin gabe.

Sistemaren mantenimendu kostuak ere oso baxuak dira, LEDak denbora luzez irauten dutelako. Aurreikusten da inbertsioa urte batzutan amortizatuko litzatekela.

Lantaldean erabaki da proiektua bultzatzea. Horretarako konkurtso publiko bat prestatu beharko da. Horretaz gain zalantza batzuk sortu dira datuak garraiatzeko argi-indarraren sarearen erabilpenaren inguruan (osasunarekin erlazionatuta). Aurrera begira pleguak lantzen eta sortutako zalantzak argitzen jarraituko dugu.

2- Plaza eta bidegorria

Plaza eta bidegorriaren artean nolabaiteko bereizketa jarri nahi dugu. Bereizketa hori ez du zertan fisikoa izan, “psikologikoa” izan daiteke. Barandilla bat jartzeko aurrekontua badago baina taldekideok adostu dugu barandilla bat ez dela oso egokia. AR kideak pergola baten bidez estalitako eserlekuak jarri daitezke adierazi du. Eztabaida eman da eta erabaki da plazan ibiltzen den jendearekin batera auzolanean gaur dauden elementu ezberdinak konbinatuz (bankuak, lorontziak...) konfigurazio ezberdinak probatu direla.

3- Beko kale

Itten-ekin egindako proiektua itxita dago. Proiektu horren emaitza banatutako txostentxo da. Lantaldeko kide batzuk gogor kritikatu dute prozesu horren emaitza hori besterik ez izatea. Edozein kasutan Beko Kaleri begira argi daukagu egokiena dela norabide bakarra jartzea eta horretarako kalearen bukaeran errepide nagusiarekin komunikatutako irteera bat sortzea. Hori gauzatu ahal izateko behar-beharrezkoa izango litzateke udalak laister eskuratzeko asmoa daukan terrenoa (Jaso enpresa eta Beko Kaleren arteko lautada). OA eta AG esan dute plan partzialaren aurrekontua

eskatuko dutela.

4- Hirigintza arau orokorrak

OA arkitektoak azaldu digu Arau Orokorrak aldatu beharko balira badaudela hiru gai garrantzitsu eztabaidatu eta erregulatu beharrekoak:

- Bekokale
- Baserrien zatiketak egiterakoan 2 etxebizitza baino gehiago egiteko aukera.
- Txabolen arauketa (adib. Beiti kaleko terrenotan egindakoak)